

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko uztailaren 2an hartutako erabakiaren laburpena; bertan deitzen baitira 2021-2022 ikasturtean Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuaren hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeentzako garraiorako laguntzen deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak

BDNS(Identif.): 574673

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/574673>).

Lehena. Onuradunak

Derrigorrezko Hezkuntzako ikaskuntzak eskaintzen dituzten Vitoria-Gasteizko ikastetxeak izango dira deialdi honen hartzaileak, betiere, ikastetxe horietako ikasleek (guztiek edo batzuek) 2021-2022an Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak antolatutako hezkuntza-programetako batean parte hartzen badute eta, horrez gain, garraio kolektiboren bat erabili behar izan badute beren ikastetxetik programa gauzatu den tokira joateko edo alderantzizko bidea egiteko.

Bigarrena. Helburua

Hauxe da diru-laguntzen deialdi honen xedea: 2021-2022 ikasturtean Vitoria-Gasteizko Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak antolatutako hezkuntza-programetan parte hartzen duten ikastetxeei beren gastuetan laguntzea, ikasleak garraio kolektiboetan garraiatzeak eragindako gastuetan, zehazki.

Hirugarrena. Oinarri arautzaile espezifikoak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2021eko uztailaren 2ko erabakiaren bitartez onetsiak; ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 12.250,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea oinarri hauen deialdiri dagokion testu-zatia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean irekiko da, eta 2021eko urriaren 8ra arte egondo da irekita (egun hori ere barne). Eskabideak epez kanpo aurkeztea diru-laguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 2a

Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria
ESTIBALIZ CANTO LLORENTE